

eIkarrizketa

❖ 1. Zergatik euskara planak enpresetan? Zertarako?

- **CCOO:** gaur egun oraindik enpresa gehienetan euskararen erabilera txikia edo hutsa da. Gizartean euskara erabiltzeko ahaleginak ez dira enpresetan gauzatu. Egoera hau aldatzeko ezinbestekoak dira euskara planak.
- **LAB:** lan jarduerak gure bizitzaren zati handia betetzen du, sozializazio arlo nagusia da, beraz, ez dago euskararen normalkuntza lortzerik lan eremua euskaldundu gabe.
- **UGT:** langileek beraien enpresetan eskubidea dutelako nahi duten hizkuntza erabiltzeko.
- **ELA:** euskara normalizazio prozesuan, hutsune handienetako bat, enpresetako lan harremanetan aurkitzen da eta honi aurre egiteko ezinbestekoa da euskara sustatzeko plan egoki bat egitea.

❖ 2. Zein da sindikatuen eginkizuna lan honetan?

- **CCOO:** sindikatuen lana ezinbestekoa da, gure ordezkari sindikal eta afiliatuei informazioa eskaini eta enpresa euskalduntzeko ahal dugun guztia lagundu eta animatu. Komiteen bitartez euskara plana butzatzea, ezinbestekoa da aurrera eramateko.
- **LAB:** lehenik eta behin, sindikatuen baitan euskararen normalkuntzarako konpromisoa erdietsi, barneko eta kanpoko jardueren euskalduntzea bermatuko duen plana garatuz. Lantokietan langileen sentsibilizazioa bultzatu, lan hitzarmenetan normalkuntzaren aldeko neurriak jaso euskara planak abia daitezten. Enpresen erantzukizun soziala eskatzea beharrezkoa da.

SINDIKATUETAKO BURUNTZALDEKO
ARDURADUNAK: Kerman Galarza (CCOO), Elias Miner (LAB), Inma Lopez (UGT), Iñaki Artetxe (ELA)

- **UGT:** gure delegatuen bidez, gaia bultzatu eta euskararen erabilera erraztu nahi dugu.
 - **ELA:** sindikatu nagusi eta abertzalea garen aldetik, euskararen aldeko sentsibilizazioa bultzatzen jarraitu behar dugu lan munduan. Honetarako, sentsibilizazio gutxi erakusten duten delegatuei ikusarazi behar diegu zein garrantzia duen euskara enpresetan sustatzea.
- ### ❖ 3. Zein eragin izan du zuen sindikatuan gai hau lantzen hastean?
- **CCOO:** plan hauek eraman dituzten Euskadiko Langile Komisiotako ordezkariak pozik eta gogoekin dabilta plan hauek sustatu nahian. Lehen toki gutxi zeukan zeregin hau gero ta gehiago ikusten da ordezkarien eginkizunetan, baita ere guk sinatzen ditugun enpresa hitzarmenetan ere.
 - **LAB:** gure planaren ardatzetariko bat da, Laneus ildoan kokatua. Halere, argi dago, planei heldu baino lehen ibilbide bat egin dugula gure baitan barne lana egiten eta estrategia eragingarriak bilatzen. Iaz, gai honen inguruan, burutu genuen II. Konferentziak urrats berriak emateko balio digu.
 - **UGT:** beraien lanpostuetan euskaraz bizi diren gure langileengan eragin positiboa izan du.
 - **ELA:** gure sindikatuko delegatu batzuegan izugarriko motibazio eta inplikazioa suposatu du Buruntzaldea proiektuak baina kasu askotan, bestelako lan errebindikazioen antzera, ezezko borobilak jaso dira enpresen aldetik.

motzean

BURUNTZALDEKO UDALAK 2006-2007 ikasturteko sustapen kanpaina

Duela bi ikasturte hasi ginen egitasmo hau lantzen eta, hirugarren ikasturtez heldu diogu berriro lanari. Horretarako, EMUN enpresa kontratatu dugu eta berriz ere bera izango da egitasmoa garatuko duena. Aurten 24 enpresa bisitatu eta **euskara planak** martxan jartzera gonbidatuko ditugu. Zerbitzu ona eskaintzean datza edozein enpresaren arrakasta. Kalitatea bermatzea, bezeroak asebetetzea, bezero berriak erakartzea eta legea betetzea dira horretarako oinarriak. Enpresaren hizkuntza politika eguneratzeko bidea da. Hori da **euskara plana**: enpresa baten balio erantsia handitzeko tresna, zerbitzu hobea eskaintzeko bidea, kalitatea hobetzekoa.



“Horregatik dabil bizkor gaztelera eta makal euskara: jendeak berealdiko gauza pila egiten dituelako euskararen alde, salbu eta beharrezkoa den bakarra: hitz egin.”

BERNARDO ATXAGA
Idazlea

Zer da...?



Normalizatutako hizkuntza

Bizitzako funtzio guztiak hizkuntza horretan egin daitezkeenean, orduan dago normalizatuta hizkuntza: aisialdia, lana, harremanak, hezkuntza... Horregatik da ezinbestekoa euskara lan mundura sartzea; esparru hori euskarak irabazi egin behar du. Orduan egongo da euskara normalizaziotik gertuago.